

# Lehorsteak 40.000 hektareari kalte egin die Nafarroan, batik bat Erriberan

Erdialdetik hegoaldera doan eremua da «zigortuena», eta gainerako lurretan egoera «onargarria» da oraingoz • Espainiako Gobernuak dekretu bat lantzen ari da kaltetutako eremuen irizpideak ezartzeko

Joxerra Senar Iruñea

Nekazariek aurretik ohartarazi zuten Nafarroa hegoaldean gari eta garagar uzta galduta zegoela lehorstearen ondorioz. Kalte horren tamaina neurtu du Nafarroako Gobernuak. Erriberan eta Nafarroa erdialdeko eremu batzuetan, lehorsteak 40.000 hektareari kalte egin die guztira. Galera «larria» dela nabarmendu zuen Itziar Gomez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko kontseilariak atzo. Gainerako eskualdeei dagokienez, larreen eta laboreen egoera «onargarria» dela uste du. Ureztatzen diren lurretan, goiz da eragina neurtzeko: «Oraindik ere artoa erein eta planifikatzen den garaian gaude. Maiatza hilabete funtsezkoa izango da».

Aurten hirugarren aldiz, lehorstearen mahaia bildu zen atzo Landa Garapeneko Departamentuaren Iruñeko egoitzan. Gobernuko ordezkariekin batera, bertan izan ziren sektoreko eragileak, hala nola EHNE eta UAGN laborantza sindikatuak, UCAN kooperatiben elkarteak, Alinar kontserba enpresen elkarteak eta Aemet meteorologia zentroa. Bilkura horretan, gobernuak oraingo egoeraren eta aztertzen ari diren neurrien berri eman zien eragileei.

Laborariek aurreratu bezala, udazkenean erein eta udan biltzen diren zerealen uzta iri bete-betean eragin dio lehorsteak. Batik bat goi eta behe Erriberan. Nafarroa erdialdeko eremu batzuetan ere handia da galera. «Horiek dira zonarik zigortuenak», azaldu du Gomezek. Gaur-gaurkoz, 40.000 hektarea inguru, baina kanpaina amaitzeko bi hilabete falta direnez, baliteke galera handiagoa izatea, eguraldia aldatu ezan.

Nafarroan, ureztatze sistema darabilten lurrek 119.000 hektareako azalera hartzen dute, eta handik ura hartzen duten laborariak murrizketen beldur dira. Nafarroako ubideko lehen zatiko lurretan (30.000 hektarea) Itoizko urtegitiko ura hartzen dute, eta



Ohi baino lehorrago dagoen Cascanteko gari soro bat, apirilaren erdialdean. OLATZ ARTOLA

bertako hornidura «erabat bermatua» dago, Gomezek arabera.

## Bardeako ubidean, %50

Esako urtegitik ura hartzen duten Bardeako ubideko erabiltzaileen egoera kezagarriagoa da. Gaur egun, urtegia %55 dago beteta. Iaz garai honetako egoeraren aldean, uraren erabilera erdira murriztu du Ebroko Ur Konfederazioak: egun, hektareako 2.500 metro kubiko ur har daitezke. Are, hustuago dago Ebroren urtegia. Kantabriar (Espainia): %40,5 dago beteta. Hango urak ureztatzen du Erriberaren zati handi bat, Lodosako ubidearen bidez.

Neurriei dagokienez, laguntzen tramitazioa azkartzeko eskatu diote Europako Batzordeari, laborariek lehenago jaso dezaten dirua. Egoerari aurre egiteko laguntza zuzenak emateko aztertzen ari da Nafarroako Gobernuak Madrilekin batera.



**Oraindik ere artoa erein eta planifikatzen den garaian gaude. Maiatza hilabete funtsezkoa izango da»**

**Itziar Gomez**  
Landa Garapeneko kontseilaria

**«Gehiago espero genuen. Oraintxe, Nafarroako Gobernuak ez du marjina handirik krisi neurriak hartzeko»**

**Patxi Irizarri**  
EHNE Nafarroako idazkari nagusia

**«Bilera etsigarria izan da. Egoera oso-oso zaila da, eta uste genuen neurri zehatzak egongo zirela»**

**Felix Barriain**  
UAGNko presidentea

Espainiako Nekazaritza Ministerioak Europako Batzordeari eskatu dio aktiba ditzala ezohiko krisietarako laguntza bereziak. Adibidez, iaz hori egin zuen Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko, eta Nafarroan sei milioi euro banatu ziren abeltzainen artean, udazkenean. Horrez gain, Nekazaritza Politika Bateria-tuko laguntzak jasotzeko baldintza tekniko batzuk malgutzen saiatuko da gobernuak.

Azkenik, Gomezek azaldu du ezohiko laguntza guztiak legedi berezi bat beharko dutela: Espainiako Gobernuak errege dekretu bat prestatzen ari da natur hondamendi baten pare jartzeko lehorsteak hondatutako eremuak. Zona horiek mugatzeko irizpideak ezartzen ari da Aemet. Maiatzaren 16rako dekretuaren zirriborroa prest egotea espero da.

«Gehiago espero genuen. Oraintxe, Nafarroako Gobernuak

ez du marjina handirik krisi neurriak hartzeko», aipatu zuen EHNEko Patxi Irizarri, bilera amaitutakoan. Neurriei dagokienez, errenta zerga jaisteko eskatu du: «Espainiako Estatuan moduluan daudenei %25eko jaitsiera ezarri diete. Nafarroan ez dugu modulurik, baina eskatu dugu bide hori jorratzeko». Gainera, zerealeko lastoa biomasa gisa erre eta energia iturri gisa erabili ordez animalien bazkarako lehenestea proposatu zuen.

Antzeko eskaera egin zuen UAGNko presidente Felix Barriainek. «Bilera etsigarria izan da. Egoera oso-oso zaila da, eta uste genuen neurri zehatzak egongo zirela. Neurri sendoak hartu behar dira, eta arin». EHNEren modura, zergak jaisteko eta lastoa bazkarako erabiltzeko eskatu zuen. Barriainen ustez, funtsezkoa da laguntzen tramitazioa azkartzea eta mugatzea.